

Komisioen tarifak, baldintzak eta **bezeroei jasanaraz daitezkeen** gastuak

2010-11-30etik indarrean

50. EPIGRAFEA ATZERRIAREKIN EGINDAKO TRANSAKZIOEN ONDORIOZ ATZERRI-MONETAN EDO EUROTAN EGINDAKO ERAGIKETETARAKO KOMISIO, BALDINTZA ETA GASTUEN TARIFAREN BALDINTZA OROKORRAK.

1 APLIKAZIO EREMUA

Tarifa hau, 67. Epigraferaino, Bankuak oro har aplikatzen die Espainian egoiliarak diren eta ez diren bere bezeroei, atzerri-monetan egindako eragiketetarako, bai eta eurotan egindakoetarako ere, azken horiek kanpoan egindako transakzioen ondoriozkoak badira

Ondorio guztietarako, atzerriko moneta izango da euroa ez den beste edozein moneta.

2 KANBIO APLIKAGARRIA

Eurotatik dibisetara eta alderantziz bihurtzeko kanbio aplikagarria merkatuko kotizazioei dagokiena izango da, Entitate honek egunero finkatzen dituen kanbioei jarraituta.

3 GASTUAK ETA ZERGAK

Bezeroaren kargura izango dira posta, telex, fax eta swift gastuak, halakorik balego. Posta gastuak, hala dagokionean, Posta eta Telekomunikazioen Zuzendaritza Nagusiak uneoro bai nazioko bai nazioarteko eragiketetarako argitaraturik dituenak izango dira. Kontzeptu horiengatik zenbatekoak posta-tarifetan izaten den edozein aldaketari aldi berean egokituko dira.

Era berean, eskatzailearen kargura izango dira itzulpen-gastuak -itzulpena bezeroak berariaz eskatutakoa bada-, tinbreak, CESCEren edo antzekoen aseguru-primak, hala badagokio, eta tarifetan aurreikusitako komisioen eta eragiketen kobrantzatik erator daitezkeen beste edozein gastu eta zerga.

4 ATZERRIAN BIZI DIREN KOMISIO-EMAILEEN GASTUAK JASANARAZTEA

Lagatzailea edo agindu-emaile ez egoiliarak baldintzatzen badu gastu eta komisio guztiak onuradunaren edo igorpen-hartzailearen kargura izan behar direla, azken horri kobratuko zaio ez egoiliarrari dagokiona, atzerriko komisio-emaileen egoerarako ezarritako tarifaren arabera, Espainiako bezeroei jasanaraz daitezkeen tarifagatik aplikatzea dagokionaz gain.

5 ARAU OROKORRAK

Bankuak beretzat gordetzen du baldintza hauek edozein unetan aldatzeko eskubidea (aurretik Espainiako Bankuari jakinarazita, horretarako ezarrita diren araei jarraituz)

Tarifa hori gehienekoa da eta ezin da aplikatu bertan adierazitako baino tasa handiago bati.